

**AGINDUA, HEZKUNTZAKO SAILBURUARENA, SAILAREN 2021. URTEKO DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA (DPE) ALDATZEN DUENA**

2021erako Hezkuntza Sailaren DPE 2021ko martxoaren 23ko Aginduaren bitartez onartu zen.

Kontrol Ekonomikoko Bulegoak Dirulaguntzen Plan Estrategikoei buruz 2015eko irailaren 18an eman zuen 01/15 zenbakidun zirkularrak ezarritakoari jarraiki, eta, era berean, Diru-laguntzen gaineko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 8.1 artikuluan jasotakoa betetzeko:

*“Herri Administrazioetako organoek edo diru-laguntzak ezartzea proposatzen duten beste guztiek, alde aurretik, Diru Laguntzen Plan Estrategiko batean zehaztu beharko dituzte horien aplikazioarekin lotu nahi dituzten helburuak eta eraginak, horiek guztiak lortzeko behar den epea, ustez egongo diren kostuak eta finantzazio-iturriak. Nolanahi ere, Plana burutzeko ezinbestekoa izango da aurrekontuen egonkortasunerako helburuak betetzea.”*

Aurrekoa betez, Ikerketa Zuzendaritzak, Hezkuntza Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako Zuzendaritzak Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritzak eta Teknologia eta Ikaskuntza Aurreratuen Zuzendaritzak 2021 DPE aldatzeko eskatu dute.

Alde batetik, Ikerketa Zuzendaritzak Oinarrizko eta/edo Aplikatutako Ikerketa Proiektuei eta Unibertsitatearen eta Enpresaren arteko proiektu bateratuei buruzko deialdiei buruzko prozedura hasi du, eta beharrezkotzat jo du aurreikusitako adierazleen kreditua eta magnitudeak handitzea.

Bestalde, Hezkuntza Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako Zuzendaritzak egiaztatu du handitu egin behar direla irabazi-asmorik gabeko erakundeentzako deialdiari dagozkion zenbatekoak, baldin eta Hezkuntza Sailari lagundu nahi badiote eskolaren eremuan ikasle ijitoei zuzendutako hezkuntza-jarduerak garatzen.

Gainera, Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritzak, azken deialdiko datuak aztertu ondoren, egokitzat jo du gailu digitalak erosteko dirulaguntzen deialdirako zenbatekoa handitzea, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa ikasten ari diren ikasleek erabil ditzaten.

Azkenik, Teknologia eta Ikaskuntza Aurreratuen Zuzendaritzak, Lanbide Heziketako ikastetxe pribatu-itunduen sareko heziketa-zikloen prestakuntza eleaniztunaren deialdiari buruzko prozedura hestean, egiaztatu du deialdi horretarako aurreikusitakoa baino aurrekontu-kreditu handiagoa duela. Deialdi hori LHko ikasleek atzerriko hizkuntzan duten hizkuntza-gaitasuna indartzera bideratuta dago.

**ORDEN DEL CONSEJERO DE EDUCACIÓN, POR LA QUE SE MODIFICA EL PLAN ESTRATÉGICO DE SUBVENCIONES (PES) DEL DEPARTAMENTO PARA EL AÑO 2021**

El PES del Departamento de Educación para el año 2021 se aprobó mediante Orden de 23 de marzo de 2021.

De conformidad con lo establecido en la Circular número 01/15, de 18 de septiembre de 2015, dictada por la Oficina de Control Económico y relativa a la Elaboración de los Planes Estratégicos de Subvenciones, así como, en cumplimiento de lo establecido en el artículo 8.1 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones:

*“Los órganos de las Administraciones públicas o cualesquiera entes que propongan el establecimiento de subvenciones, con carácter previo, deberán concretar en un plan estratégico de subvenciones los objetivos y efectos que se pretenden con su aplicación, el plazo necesario para su consecución, los costes previsibles y sus fuentes de financiación, supeditándose en todo caso al cumplimiento de los objetivos de estabilidad presupuestaria.”*

En cumplimiento de lo anterior, la Dirección de Investigación, la Dirección de Diversidad e Inclusión Educativa, la Dirección de Aprendizaje e Innovación Educativa y la Dirección de Tecnología y Aprendizajes Avanzados solicitan la modificación del PES 2021.

Por una parte, la Dirección de Investigación ha iniciado el procedimiento relativo a las convocatorias relativas a Proyectos de Investigación Básica y/o Aplicada y Proyectos conjuntos Universidad-Empresa, considerándose necesario incrementar el crédito y las magnitudes de los indicadores previstos.

Por otro lado, la Dirección para la Diversidad e Inclusión Educativa ha constatado la necesidad de incrementar los importes correspondientes a la convocatoria para entidades sin ánimo de lucro que deseen colaborar con el Departamento de Educación en el desarrollo, en el ámbito escolar, de actividades educativas dirigidas al alumnado gitano.

Además, la Dirección de Aprendizaje e Innovación Educativa, tras analizar los datos de la última convocatoria, ha considerado oportuno incrementar el importe para la convocatoria de subvenciones para la adquisición de dispositivos digitales, para su utilización por el alumnado que curse Educación Primaria, Educación Secundaria Obligatoria y Bachillerato.

Por último, la Dirección de Tecnología y Aprendizajes Avanzados, al iniciar el procedimiento relativo a la convocatoria de formación plurilingüe de los ciclos formativos de la red de centros privados concertados de Formación Profesional, ha acreditado disponer de un crédito presupuestario superior al previsto para dicha convocatoria. Esta convocatoria está orientada a reforzar la competencia lingüística del alumnado de FP en lengua extranjera.





Beraz, egokia da 2021eko DPE planean aldatzea lkerketa Zuzendaritzaren 2. helburu estrategikoaren 2. eta 3. dirulaguntza lerroak; Hezkuntza Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako Zuzendaritzaren 3. helburu estrategikoaren 1. dirulaguntza lerroa; eta Ikaskuntzaren, Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritzaren 7. helburu estrategikoaren 1. dirulaguntza lerroa eta Teknologiarene eta Ikaskuntza Aurreratuen Zuzendaritzaren 4. helburu estrategikoaren 1. dirulaguntza lerroa.

Horiek horrela, Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen otsailaren 23ko 71/2021 Dekretuaren 4. artikulua esleitzen dizkidan eskumenez baliatuz,

#### EBAZTEN DUT:

**Lehenengoa.-** Hezkuntza Sailaren 2021erako Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren aldaketa onartzea, honako dirulaguntzen lerroetan: "Oinarritzko eta/edo aplikatutako ikerketa-proiektuak", "Unibertsitatea-Enpresa proiektu bateratuak", "Ikasle ijitoentzako hezkuntza-jarduerak", "Gailu digitalak eskuratzea" eta "Atzerriko hizkuntza indartzea itunpeko ikastetxe pribatuetan".

**Bigarrena.-** Agintzea Sailaren euskadi.eus webgunean argitara ematea.

Por tanto, procede modificar en el PES 2021 las líneas subvencionales 2 y 3 del objetivo estratégico 2 de la Dirección de Investigación; la línea subvencional 1 del objetivo estratégico 3 de la Dirección para la Diversidad e Inclusión Educativa; la línea subvencional 1 del objetivo estratégico 7 de la Dirección de Aprendizaje e Innovación Educativa y la línea subvencional 1 del objetivo estratégico 4 de la Dirección de Tecnología y Aprendizajes Avanzados.

Así, en virtud de las competencias que me atribuye el artículo 4 del Decreto 71/2021, de 23 de febrero, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Educación,

#### RESUELVO:

**Primero.-** Aprobar la modificación del Plan Estratégico de Subvenciones del Departamento de Educación para el año 2021, en las líneas subvencionales "Proyectos de Investigación Básica y/o aplicada", "Proyectos conjuntos Universidad-Empresa", "Actividades educativas dirigidas al alumnado gitano", "Adquisición de dispositivos digitales" y "Refuerzo de lengua extranjera en centros privados concertados".

**Segundo.-** Ordenar que se dé publicidad mediante su inserción en la web euskadi.eus del Departamento.